emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

SPRI TALDEA

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA (2019-2023)

GRUPO spri TALDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

AURKIBIDEA

. SARRERA 4

1 . OINARRIAK ETA PRINTZIPIOAK 4

1.1 LEGE OINARRIA 5

1.2 PRINTZIPIOAK 5

2 METODOLOGIA 7

3 DIAGNOSTIKOA 9

3.1 DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA 9

3.2 DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA 13

4 . 2019-2023ko BISIOA, ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK 17

4.1 SPRI AGENTZIA 28

4.1.1 DIAGNOSTIKOA 28

4.2 SPRILUR 34

4.2.1 DIAGNOSTIKOA 34

4.2.2 ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA 36

4.3 EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOAK 38

4.3.1 DIAGNOSTIKOA 38

4.3.2 ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA 40

4.4 BASQUE TRADE 43

4.4.1 DIAGNOSTIKOA 43

4.4.2 ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA 45

4.5 ARRISKU KAPITALA 47

4.5.1 DIAGNOSTIKOA 47

4.5.2 ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA 49

4.6 BIC ARABA 51

4.6.1 DIAGNOSTIKOA 51

4.6.2 ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA 53

5. GOBERNANTZA ETA JARRAIPEN SISTEMA 54

6. AGINTE PANELA 56

. SARRERA

SPRI Taldea Eusko Jaurlaritzaren enpresa garapenerako agentzia da, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren menpekoa, eta euskal enpresei laguntzen die beren lehiakortasuna hobetzen. SPRIren helburu nagusia da euskal enpresak babestu eta bultzatzea, Eusko Jaurlaritzaren politikak zabaltzeko zerbitzu eta programen bitartez, eta, bide horretatik, zerbitzua emateko euskal enpresa sareari.

SPRI Taldeak EAEko hiru herrialdeetan ditu languneak; bulego nagusia, ostera, Bilbon dauka. Sozietate hauek biltzen ditu bere baitan: SPRI, SPRILUR, Euskadiko Arrisku Kapitala Kudeatzeko sozietatea, Parkeen Sarea, Basque Trade eta Negozio eta Berrikuntza Zentroak (BICak).

Txosten honetan jaso dugu SPRI eta berau osatzen duten erakundeetako Euskara Normalizatzeko Plana, 4 urterako plana.

SPRIk lehen euskara plana 2014an abiatu zuen, eta urte bat geroago Euskararen Erabilpenerako jarraibideak landu zituen, 2O14an onartutako Euskara Planean jasotakoa betetze aldera.

Irizpide horiek indarrean daude, eta horiek izan dira euskara plan honen ardatz nagusi.

Dokumentuaren helburua da erakunde bakoitzean diagnostikoa egitea eta hura hobetzeko zer pauso eman behar diren zehaztea.

2019-2023 artean izango du balioa txosten honek, eta urtez urte berau kudeatzeko gestio plan bat egingo da.

Plan estrategikoa SPRI Taldean eta berau osatzen duten sozietateetan egin da, zehazki hauetan:

- Spri Agentzia
- Sprilur
- Basque Trade & Investment
- Euskadiko Arrisku Kapitalaren kudeaketa
- Euskadiko Parke Teknologikoen sarea
- BIC Araba

1. OINARRIAK ETA PRINTZIPIOAK

SPRI, Eusko Jaurlaritzaren enpresa garapenerako agentzia den heinean, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren mendekoa, baditu euskararekiko hainbat betekizun, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren baitakoak.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 2. artikuluaren arabera, plan horren eragin eremukoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta beraren erakunde autonomiadunak. Honako hauek zehazki:

- Indarrean dagoen VI. plangintzaldia (2018-2022). Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta plan nagusia.

1.1 LEGE OINARRIA

Honela dio Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriak:

1.—Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioei lotuta egonik, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahi eta nahi ez euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzuetan.

2.—Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, dekretu honetan ezarritako irizpideak erabilita, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezen hartu beharreko neurriak hartuko dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak argitaratutako "EAE-ko herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak" dokumentuan Sozietate publikoen atalean proposamen hauek jasotzen dira:

- Sozietate publikoetan euskararen kudeaketa zeharkako elementu gisa kudeatzea eta euskararen balio erantsiaz ohartzea. Horretarako, sozietate publikoetako ordezkarien lidergoa landu beharko litzateke.
- Udal edo foru erakunde bakoitzak bere menpeko sozietate publikoetan erabilera planak egiteko eskatzea, eta sozietate publikoaren tamaina txikiagatik erabilera plana posiblea ez balitz, udaleko planaren barruan integratzea.

Horrenbestez, SPRI Taldeko normalizazio planean gidalerro hauek hartu dira kontuan.

1.2 PRINTZIPIOAK

Lege eta irizpideek oinarri ona ematen digute euskararen biziberritzearen gurpilean sartzeko. Halere, legeetatik harago, hizkuntzen bilakaeran eragina duten alderdiez jabetzea beharrezkoa zaigu arlo soziekonomikoan euskara biziberritu nahi badugu. Legeek oinarri ona ematen digute, baina erronkari tamaina hartzeko, garapen jasangarriaren printzipioei erreparatu behar diegu.

Aniztasun kulturala eta linguistikoa gure errealitatearen parte da herrian nola enpresetan. Gero eta gehiago dira gure paisaiaren parte diren hizkuntzak, eta, hori horrela, enpresetan hainbat dira hiru hizkuntzatan jarduten duten langileak. Globalizazioak merkatu ezberdinetan jardutera eraman ditu enpresak, eta horren adibide dugu, besteak beste, komunikazio beharrei erantzuteko euskarriak hizkuntza ugaritan daudela.

Hizkuntzen dema horretan, hizkuntza gutxituek gero eta bide malkartsuagoa dute tokiko komunitatearen bizitzan erabilgarri izateko, funtzioak betetzeko. Munduko hizkuntzen bizindarrean desoreka handiak daude, eta horien oinarrian botere harreman desorekatuak daude: merkatuan nagusitasuna duten estatuek hizkuntza hegemonikoak ezartzen dituzte salerosketaren merkatuan, eta guztien artean bat nagusitzen ari da, ingelesa, nazioarteko *lingua franca* bihurtzeko bidean baitago.

Historian zehar etengabe errepikatzen den hizkuntza joera horren aurrean, garapen eredu jasangarrien bila jo beharra dute komunitateek, baita gure hizkuntza komunitateak ere.

Tokiko hizkuntzan bizi ahal izatea bizi kalitatearen seinale da. Beraz, garapen eredu jasangarria izango da **tokiko hizkuntza gutxituei garapen aukera duina** ematen diena eta horretarako **neurri orekatzaileak hartzen dituena** (Olaizola, 2015).

Gure herriak munduari eta hizkuntza gutxituei egin diezaiekeen ekarpenik aberatsena euskara bere lurraldean indarberritzea da. Izan ere, euskarak lurralde eta komunitate hau baino ez du. Aitzitik, gaztelaniak, frantsesak eta beste hizkuntza askok lurralde asko dituzte. Eta enpresek, eta baita SPRIk ere, zeresan oso garrantzitsua dute euskara gure lurraldean biziberritzeko.

SPRIk eta EAEko enpresa sareak hizkuntza aniztasuna kudeatu behar dute. Eta horrek esan nahi du hizkuntza asko kudeatu beharko dituztela barne zein kanpo harremanetan. Beraz, tokikoari lehentasuna emateko neurriak eta politikak hartzea dagokie. Hori ez egiteak badakigu zer dakarren: nagusi den hizkuntzaren alde egitea.


Praktikotasunari eta errentagarritasun ekonomikoari begiratuta, hizkuntza hegemonikoetan egitea izan ohi da ohikoena enpresetan zein gizartean. Baina sozialki ez da errentagarria. Hizkuntza komunitate bat garapen biderik gabe uztea ekartzen du horrek, bere identitatea deuseztatzea eta arbuiatzea.

Aniztasuna kudeatu behar dute enpresek, baina tokiko hizkuntzaren habitata elikatuz. Eta horretarako, komunikazio esparru propioak ziurtatu behar dira enpresetan, hau da, nagusiki euskaraz funtzionatuko duten guneak sortzea beharrezkoa da, euskararen arnasgune izango diren guneak.

SPRI erakundeak euskara bultzatzeko apustua egina du. Etorkizuneko erronka izango da zerbitzua eta lana euskaraz egitea eta euskara EAEko enpresa sarean sustatzea. Bisio hori lortzeko landu da honako plan hau.


2 METODOLOGIA

Diagnostikoa egiteko erabilitako teknikak eta prozesua hauxe izan da :



Diagnostikoa aurrera eramateko SPRI Taldea osatzen duten sozietateetako langile eta arduradunekin elkartu gara.

Sozietate bakoitzean diagnostiko kuantitatiboa (zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza) eta kualitatiboa jaso dira. Horretarako, EME ardatza hartu da oinarri gisa:



- Diagnostiko kuantitatiboa:

Galdetegia bidali zaie 6 sozietateetako langileei. Erabili den galdetegia HPSk herri administraziorako duen eredua izan da. Bi galdetegi mota bete dira: langileek betetzekoa eta erakundekoa. Guztira 95 erantzun jaso ditugu, 44 emakumezkoenak eta 51 gizonezkoenak. Hizkuntzari dagokionez, 36k euskaraz bete dute eta 59k gaztelaniaz.

Behaketa bidez ageriko hizkuntza paisaia jaso da sozietate guztietan.

- Diagnostiko kualitatiboa:

Elkarrizketen bidez sozietate bakoitzaren alderdi kualitatiboa jaso da, pertsonen balorazio kualitatiboaz gain. Elkarrizketak ardura maila ezberdineko pertsonei egin zaizkie, guztira 12 egin dira: 10 gizonezkoak eta 2 emakumezkoak.

3 DIAGNOSTIKOA

Elkarrizketak, galdetegiak eta Euskara Batzordeko kideekin egindako bilerak izan dira SPRIren diagnostikoa egiteko erabilitako bideak. Horietan parte hartu dutenek informazio baliagarria eman digute hurrengo orrialdeetan zehaztu ditugun bisio, helburu eta ekintzak definitzeko.

3.1 DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA

SPRI Taldean 12 elkarrizketa egin ditugu denera. Halere, erakundeen arabera banaketa hau izan da:

> **SPRI Agentzia: 6**
> **Basque Trade: 1**
> **Arrisku Kapitala: 1**
> **Sprilur: 1**
> **Euskadiko Parke Teknologikoak: 3**

Elkarrizketatuen jatorri geografikoari dagokionez, ondorengoa da banaketa:

- **10 bizkaitarrak eta Bilbo aldekoak**
- **2 gipuzkoarrak**

Generoari dagokionez, gizonezkoak nabarmen nagusi:

- **2 emakumezkoak**
- **10 gizonezkoak**

Elkarrizketan erabilitako hizkuntzari dagokionez, hona datua:

4 euskaraz **1 bietara** **7 gaztelaniaz**

Ondorengoak dira ateratako ondorio nagusiak:

> Batez besteko adina altu samarra da, eta hori oztopo moduan bizi dute. Askok ikasteko ibilbidea hasi zuten, baina ez diote segidarik eman ibilbideari.
>
> Euskaraz egiten den gehiena itzulpenari esker egiten da. Menpeko sentitzen dira euskaraz egin behar denean.
>
> Euskara plana tinkotasunez bultzatu beharra azpimarratu dute, eta zuzendarien eta langileen bultzada eman ezean, beste plan bat gehiago bihurtzeko arriskua ikusten dute.
>
> Enpresekin euskaraz gehiago egin eta eragile rola jokatu beharko luketela aipatu du hainbatek.

Atalka, berriz, hauek dira elkarrizketetan jasotakoak:

ELKARRIZKETATU ASKOREN EZAUGARRIAK

Euskara gaztetan ikasitakoak, ondo jakin ez

Ingurune soziolinguistikoa erdalduna, erabili ez

Ingelesa hobekiago dakite

Traba direla jabetu

Belaunaldi berriek egingo dutela sinetsita. **Kontuz!**



Lozorroan gelditzeko arriskua du SPRIk.

Hurrengo belaunaldiak euskaraz jakite hutsagatik, ez du egingo.

GATAZKARIK izan al da hizkuntza gaietan?



EZER GUTXI. BAINA…

“gatazkarik ez, erdal munduan bizi garelako”

“no hay negatividad, hay prevención: a mí no me toques”

“conflicto no, pero sí se padece. No podemos imponer ni se debe penalizar”

Euskara BEHARREZKOA al da SPRIn?

“Depende de quién esté en dirección hay más o menos impulso”

“¿En las empresas? Antes no se impulsaba, no era prioridad. Ahora está cambiando”

“Sozietate publikoa garen neurrian, derrigorrez”

“Es nuestro idioma. 2 vertientes: servicio a empresas e internamente”

“Udal eta enpresaburu askok euskaraz badakite, bereziki Gipuzkoan eta Bizkaiko bailara batzuetan”

“Lengua oficial, no potenciada suficientemente”

“Galdera tranpa da: denok gaztelaniaz egiten dugunez… beharrezkoa/komenigarria da egoera batzuetan”

“En Bizkaia y Araba puede ser lengua de relación, de gestión no en un plazo breve”

“No se está ganando batallas, nadie proactivamente nos pide en euskera”

“El uso del euskera es protocolario. Nos cuesta integrarlo en la gestión”

“Diruaren eta itzulpenen bidez gauzak euskaratzen ditugu. Guztiz menpeko gara. Arazoa gu gara, ez gara gauza zerbitzua emateko. Lan hizkuntzan urruti…”

Zeintzuk dira plan honekin dituzuen espektatibak/beldurrak?

- Beste plan bat gehiago izatea, apalean gordetzekoa
- Bultzatu behar da tinkotasun gehiagoz
- Muga batzuk ditugu, formazioa beharrezkoa da
- Euskararen erabilera protokolarioa da, kudeaketan sartu beharko genuke
- Hizkuntza ohiturak aldatzen, ahozkoan hobetzen goaz

Proposamenak

Kudeaketan hobekuntzak

"Plan transversal para toda la empresa. Otra línea dentro del plan de gestión para evaluar."

"Introducir primordialmente en estos procedimientos: comunicación, cooperación y servicios, gestión de infraestructuras, recursos humanos y sistemas"

"Urteko gestio planetan txertatu. Jarraipena egin adierazleak erabilita. Euskara arduradunak informazioa jasotzea komeni da, dena goitik beherakoa izan ez dadin"

"Kontratazioetan eragin behar da, bestela ez gara inoiz gauza izango zerbitzua euskaraz bermatzeko. Eta badagokigu"

"Los directores tienen que ser ejemplo"

Kanpo eta barne erabilera handitzea

"Detectar las empresas que tienen compromiso y avanzar junto a ellas"

"Tener un mapa de nuestros clientes. Concienciación sobre las personas que toman decisiones"

"Recomendar a las empresas del parque sobre algunas cuestiones: rótulos, imagen, etc."

"Sendotu euskalkafeak, Euskaraldiko dinamikak…"

"Idazki errazak eta erabilienak euskaratu behar ditugu. Gero kontratuetara pasatuko gara, beldurrak ditugu arlo juridikoa sartzen delako"

"Bileretan euskara tartekatzen hasi, erabakiak hartzekoak ez diren gaietatik hasita"

Baliabideak

"Apoyo para correcciones y traducciones, formación técnica"

"Mejorar la gestión de las traducciones"

Formazioa

“Zerbitzu hizkuntza izateko pertsona batzuk formatu edo izendatu, euskaraz datozen eskaerei erantzuteko”

“Euskara gaitasunaren mailaketa probak egin”

“Trebakuntza hirigintza arloko terminologian. Arlo teknikoan euskara maila altua/teknikoa ere behar dugu”

Sentsibilizazioa eta komunikazioa

“El plan tiene que conseguir bajar hasta las personas, convenciendo, involucrando”

“Buen plan comunicativo interno. La dinamizadora debe comunicar muy bien el plan, uno a uno.”

“Komunikatu zerbitzua euskaraz ematen dugula. Euskara plan eraginkorra duten enpresetara bisitak egin, irudia indartzeko”

“Trabajar el convencimiento personal de cada persona, aunque no sea tarea fácil”

3.2 DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA

Euskararen gaitasunaren diagnostikoa egiteko SPRI Taldeko sozietateek emandako datuak erabili ditugu, ez dira, beraz, mailaketa baten ondorioz lortutakoak, Euskara Batzordeko kideek duten ezagutzatik jasotakoak baizik.

Datuak aztertuta, bi dira ondorio nagusiak:


- **Euskararen gaitasuna hobetzeko beharra du SPRI Taldeak**, baldin eta etorkizun hurbil batean zerbitzua euskaraz eman nahi badu eta lan hizkuntzan aurrerapausoak eman nahi baditu.

  Basque Traden 10 lagunetik ia 6 dira euskaldunak, gainerako erakundeetan 10etik 3 edo 4 lagun dira euskaldunak.

  Elebidun hartzaileen kopurua altua da SPRIn, 3 parkeetan eta Arrisku Kapitalean. Asko dira euskara ikasten dabiltzanak edo aritutakoak. Horietako batzuk adinez 50 urtetik gorakoak dira eta ez dira iritsi euskalduntzea bururaino eramatera. **Formazio eta trebakuntza palanka** garrantzitsuak izango dira, baita ulerrizketak ere, baina **hobekuntzak txertatu behar dira** emaitzak hobeak izatea nahi badugu.

- **Kontratazio politikan eragin behar da,** epe motzean langile ugarik hartuko dutelako erretiroa. Gaitasunari lotuta, langileen batez besteko adina ere kontuan hartzeko aldagaia da. SPRI agentzian, esaterako, 54-55koa da batez bestekoa adina. Langileek erretiroa hartu ahala, euskaldunen kopurua handitzeko aukera izango da, betiere, kontratazio politikan iraunkorki eragiten bada.

Behean duzue euskararen gaitasunaren taula erakundeka, euskaldunen eta hartzaile elebidunen arabera sailkatuta. Elebidun hartzaileak dira euskaraz nekez hitz egin edo hitz egin ez arren, ondo ulertu edo irakurtzen duten pertsonak. Gaztelaniaz, *bilingüe pasivo.*


EUSKARA GAITASUNA % (2019)
100%
90%
80%
70%
60%
50%
40%
30%
20%
10%
0%
50%
54%
46%
0%
41%
36%
23%
59%
32%
9%
55%
31%
14%
50%
33%
17%
42%
38%
18%
30%
20%
SPRI
SPRILUR
PARKEAK
BASQUE TRADE
ARRISKU KAPITALA
BIC ARABA
Guztira
Euskaldunak
Elebidun hartzaileak
Erdaldunak

Erabilerari dagokionez, SPRI Taldearen daturik esanguratsuenak jaso ditugu bi ardatzak kontuan izanda: zerbitzu eta lan hizkuntza.


Zerbitzu hizkuntzan indargune eta hobetzekoak hauek dira:

Indarguneak:

- Ingurune digitalean ia dena euskaraz dago eskura.
- Enpresei zerbitzua idatziz euskaraz emateko ahaleginak egiten ari dira sozietateetan.

Hobetzekoak:

- Jendaurreko ekitaldietan gaztelaniak leku nabarmena du; euskarak, berriz, txikia.
- Harrera hizkuntzan SPRILURen izan ezik beste erakundeetan gaztelania da nagusi.




SPRI Taldeko sozietate barruko lan harremanei dagokienez, hauek dira emaitzak:

Indarguneak:

- Administrazioak SPRIra bidaltzen dituen dokumentu asko ele bietan egiten dira. Erakunde gehienetan (SPRIn, Parkeetan eta Arrisku Kapitalean) ahalegina egiten da informazioa ele bietan bidaltzeko.
- Enpresei zerbitzua idatziz euskaraz emateko ahaleginak egiten ari dira erakundeetan.

Hobetzekoak:

- Sortze hizkuntza gisa, txikia da erabilera, are gaitasun datuak baino txikiagoa.
- Lankideen arteko ahozko eta idatzizko komunikazioan hobetzeko tartea dago, erabilera %25etik beherako baita.



4. 2019-2023ko BISIOA, ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK

SPRI Taldeak **zerbitzuak eta programak euskaraz eskainiko dizkie euskal enpresei**.
Era berean, langileei **lan hizkuntza euskara izateko aukera** bermatuko zaie.
Sustapen ekonomikoa eta lehiakortasuna ipar hartuta, **hizkuntzaren kudeaketa sustatuko du euskal enpresetan**.


Helburuak

1. Kanpo komunikazio eta irudian, tokiko hizkuntza gaztelaniaren maila berean kokatu.
2. Enpresekiko zerbitzu eskaintzan eta harremanetan, euskara bermatu.
   Euskarari lehentasuna eman SPRI Taldeak gune euskaldunetako enpresekin dituen ahozko eta idatzizko harremanetan, tokiko hizkuntza errealitatea errespetatuz.
3. SPRIko langileen euskararen gaitasun maila handitu, kontratazio politika sendo eta formazio eta trebakuntza plan eraginkorrak erabilita.
4. Langile euskaldunei euskaraz lan egiteko aldeko testuingurua sortu, baliabide, dinamika eta aldeko politikekin. Lehentasuna emango zaie langile berriei, euskaraz zerbitzua eman eta euskaraz lan egiteko ingurunea erraztuz.
5. Plana langileei ondo komunikatu eta ahalik eta pertsona gehien inplikatzen saiatu, Zuzendaritzen eta Euskara Batzordearen lidergo partekatuaren bidez.
6. Euskara sustatzeko lana egin euskal enpresen artean.

BALIOAK

- GIZARTE ERANTZUKIZUNA
- LIDERGO PARTEKATUA
- HARREMANAK ETA TALDE LANA
- HURBILTASUNA

Ildo estrategiko guztiak landuko dira sozietate guztietan. Halere, ildoen garrantzia ez da bera izango guztietan. Garrantzi maila oinarri hartuta, ildo batzuk besteak baino lehenago landuko dira sozietateetan. Ondorengoa da ildo bakoitzak izango duen pisua edo lehentasuna sozietate bakoitzean:



ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA

Atal honetan, aurretik zehaztutako 6 ildo estrategikoen ekintza plana zehaztu dugu, bi ardatzak kontuan izanda: zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza.
Ekintza plan hau SPRI Taldeko sozietate guztientzat izango da, bai eta aginte panela ere. Guztira 28 ekintza definitu dira sozietate guztietarako.
Bestalde, sozietate bakoitzari dagokion berariazko ekintza plana sozietate bakoitzaren atalean azalduko da.

ZERBITZU HIZKUNTZA

I. Kanpo komunikazio eta irudian, tokiko hizkuntza gaztelaniaren maila berean kokatu

EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZ HASI
1. EUSKARAZKO WEB ORRIAN HOBEKUNTZAK EGIN - Loturak, atxikitako dokumentuak, etab.	KOMUNIKAZIOA	2020
2. EUSKARARI LEHENTASUNA PRENTSA OHARRETAN ETA BULETINETAN	KOMUNIKAZIOA	2020
3. BIDEO BERRIETAN EUSKARA IKUSGAI EGITEKO AUKERAK AZTERTU Izenburuak, esaldiak, hitza euskaraz/azpitituluak, etab.	KOMUNIKAZIOA	2020
4. JENDAURREKO EKITALDIETARAKO PROTOKOLOA ZEHAZTU Hizkuntza kudeaketa egin, hartzaileen araberako aurreikuspenak egin ostean: - euskara ulertu ez/gutxi ->sarrera/agurrak; - euskara ulertu erdiek: sarrera/agurra eta gai bat(zuk); - euskara ulertu gehienek->sarrera/agurra eta gaiak euskaraz (laburpena gaztelaniaz edo aldibereko itzulpena) Protokoloa hizlariekin landu ekitaldien aurretik	KOMUNIKAZIOA	2020
5. KANPAINAK EGIN, EUSKARAZKO KOMUNIKAZIOAK ERABILTZEKO Buletinak, harpidetzak edota informazioa euskaraz jasotzeko gonbita egin enpresei. - Noiz? Euskaraldian, Euskararen Egunean edo dirulaguntzen garaian.	KOMUNIKAZIOA	2020

II. Enpresekiko zerbitzu eskaintzan eta harremanetan euskara bermatu

EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZ HASI
6. ENPRESEI ZERBITZUA EMATEKO HIZKUNTZA JARRAIBIDEAK GARATU EDOTA PROTOKOLOA LANDU - Zerbitzua euskaraz eman dezaketen pertsonak/zerbitzuak identifikatu, hizkuntza gaitasuna oinarri hartuta - Zuzendarien laguntzaz protokoloa landu eta proposamena egin, aukeratutako saileko edo guneko langileen artean - Proba pilotua egingo den programa aukeratu - Proba pilotua martxan jarri, Euslan, euskara plana edo Bikain du(t)en enpres(ar)ekin - Baliabideak eskaini langileei: zuzenketa, lanpostuko laguntzak, itzulpenak, mintza saioak, kontsultak, euskarazko baliabideak (itzultzaileak eta hiztegiak) - Zerbitzuaren hizkuntza eskaintzaren inguruko balorazioa egin eta ekintza zuzentzaileak martxan jarri - Esperientzia zabaldu beste sail edo azpisailetara, era mailakatuan	Zuzendaria	2020/ 2021
7. ENPRESEN HIZKUNTZA ERREGISTROA MARTXAN JARRI - Erregistroa diseinatu (erregistroa zeinek eta nola bete behar duen adostu, beste lekuetan benchmarkinga egin) - Harrera egitean, zerbitzua zein hizkuntzatan jaso nahi duten galdetu eta erregistratu - Enpresa horiei zerbitzua euskaraz emateko behar diren kudeaketa lanak egin (komunikazioa teknikariei, sentsibilizazioa, baliabideak eta trebakuntza eskura jarri, etab) - Zerbitzu osoa bermatu ezin denean, enpresari erantzuna jakinarazi	Zuzendaritza & EB	2021

8. HIZKUNTZA ESKAINTZARI BURUZKO IRITZIA JASO - Asebetetze inkestan euskararen erabilerari buruzko galdera txertatu eta hizkuntza kexak jaso - Datuen bilakaera aztertu	**ZUZENDARITZA**	**2020**
9. DOKUMENTAZIOA AZTERTU ETA EUSKARATU	Zuzendariak	2020
10. INTERES TALDEEKIN HIZKUNTZA KUDEATU - Administrazioa, unibertsitatea eta bestelako aliatuekin dauden komunikazio beharrak aztertu. - Sail bakoitzak errepikakorrak eta sinpleak diren komunikazio jarduerak euskaraz egiteko lanketa egin: itzulpenak, lehen hitza, idatziz gonbita egin aurrera begirako komunikazioak euskaraz izateko, etab.	Zuzendariak	2021
11. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA Gutxieneko betekizunak zehaztu. Garapena egokitu sozietate bakoitzean - Kontratuaren helburuetako bat herritarrei edo enpresei zerbitzua ematea edo horiekin harremana izatea denean, kontratuan ondorengo eskakizuna txertatu: langileen euskara gaitasuna eta erabilerarako jarraibideak. - Obra eta mantentze kontratuetan txertatu ondorengo eskakizuna: errotulu, argitalpen, seinale, ohar eta komunikazioak euskaraz ere egon daitezen. - Hornidura kontratuetan, etiketak, produktuen eskuliburuak, softwareen testu eta soinu interfazeak.	Zuzendariak eta Idazkaritza Nagusia	2021

III. Langileen euskararen gaitasun maila handitu, kontratazio politika sendo eta formazio eta trebakuntza plan eraginkorrak erabilita

EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZ HASI
12. LANPOSTUEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK DEFINITU - Hizkuntza eskakizunak definitzeko lanketa egin - Langileen hizkuntza gaitasuna jasotzeko mailaketak egin - Euskara ikasteko formazio plana definitu - Langileei formazio eskaintza egin: euskara eskolak, mintza saioak eta trebakuntza - Formazio planaren jarraipena egin	Lan harremanak	2020/ 2021
13. EUSKARAREN FORMAZIO PLANA INDARTU - Formazio plana definitu, lanpostuen beharren arabera - Euskararen formazioaren inguruko benchmarkinga egin erakunde publiko zein enpresetan - Formazio eskaintza egokitua diseinatu: mintza saioak, euskalduntzea eta lanpostuko trebakuntza - Langileei formazio eskaintza egin: euskara eskolak eta trebakuntza - Formazio planaren jarraipena egin	Lan harremanak	2020
14. LANEAN EUSKARA ERABILTZEKO EKIMENAK MARTXAN JARRI: ULERRIZKETAK - Guneak aukeratu. Formazioan eta trebakuntzan dabiltzan langileei lehentasuna eman - Dinamikak aurkeztu eta parte hartzeko prestasuna lortu - Dinamikak martxan jarri eta ebaluatu	Lan harremanak	2020
15. KONTRATAZIO BERRIETAN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK APLIKATU - Hautaketa fasean eskatutako maila daukala ziurtatu: aurkeztutako egiaztagirietan edota elkarrizketa eta probetan - Hizkuntza eskakizunak betetzen ez diren kasuetan, intzidentzia moduan jaso. Desbideratzeak aztertu. • Formazio plana adostu zuzendari eta langilearekin • Formazio planari jarraipena egin eta ekintza zuzentzaileak adostu	Lan harremanak	2020

IV. Langile euskaldunei euskaraz lan egiteko aldeko testuingurua sortu

Aldeko testuingurua landuko da baliabide, dinamika eta aldeko politikekin. Lehentasuna emango zaie langile berriei, euskaraz zerbitzua eman eta euskaraz lan egiteko ingurunea erraztuz.

EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZ HASI

16. EUSKARAREN ALDEKO POLITIKAK KUDEAKETAN
- Jarraipen sistematikoa egin zuzendaritzan:
  o Euskara planari
  o Hizkuntza jarraibideei
- Hizkuntza jarraibideen betetze maila aztertu eta desbideratzeen arrazoiak identifikatu. Ekintza zuzentzaileak martxan jarri
	Zuzendariak	2020-2023

17. LANGILE EUSKALDUNEN ERROLDA EGUNERATU - Mailaketa probako datuak erabili (eginak ez badaude, Euskara Batzordearen datuak erabili)	EB	2020
18. HIZKUNTZA OHITURAK EUSKALDUNTZEKO DINAMIKAK - Mezu elektronikoak elkarri euskaraz bidaltzeko tratuak. - Zabalkunde handiko dokumentuak euskaraz betetzeko jarraibideak - Euskalkafea egiten jarraitu - Intraneta eta ofimatika euskaraz erabiltzeko kanpaina egin. Besterik adierazi ezean, euskarazkoa instalatu euskaldunak diren langileei - Laneko prestakuntza euskaraz eskaintzeko aukerak aztertu: Eskatu formazio enpresari emailea euskalduna izatea Euskarazko taldea sortzeko gonbita egin langileei	Zuzendariak EB	2020
19. LANEKO PRESTAKUNTZA EUSKARAZ ESKAINTZEKO AUKERAK AZTERTU: Formazio eskaintza aztertu eta euskaraz eskainiko direnak erabaki Eskatu formazio enpresari emailea euskalduna izatea Euskarazko taldea sortzeko gonbita egin langileei Formazioa euskaraz egin	Zuzendaria. Lan harremanak eta EB	2020/ 2021

20. BARNEKO HIZKUNTZA PAISAIA EUSKALDUNDU - Kartelak, errotulazio txikia, eta euskalduntzeko gomendio sorta banatu langileen artean - Sailetako bileretan gonbidapena egin	**SAILAK**	**2021**
21. DOKUMENTAZIOA EUSKARATZEN JARRAITU - Sail bakoitzak euskaratu beharreko dokumentazioa EBko kideari bidali - Itzulpenak bideratu	Zuzendariak & EB	2020
22. SORTZE HIZKUNTZA INDARTU - Lanpostuko trebakuntza eskaini lanpostuan bertan edota telematikoki. Zuzenketa eta gomendioekin langileen konfiantza handituko da, sortze hizkuntza handitu eta gaitasuna hobetuko da. - Euskarazko baliabideen gida osatu eta horien berri eman: itzultzaile automatikoak, Euskalbar, Hobelex, hiztegiak, etab.	Sailak	2021
23. LANGILE BERRIAK ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ - Harrera protokoloan txertatu euskara planaren eta hizkuntza jarraibideen berri ematea - Sartu berri den pertsona euskalduna denean, lanpostuan lana euskaraz egin dezan erraztasunak eman: intraneta eta ofimatika euskaraz, euskarazko dokumentazioa eskura jarri, langilea euskaraz aurkeztu langileen aurrean, euskarazko baliabideen berri eman eta hizkuntza irizpideen berri eman - Arduradunak zerbitzua euskaraz eskaintzeko gomendioak eman: lehen hitza, mezu elektronikoak, dokumentazioa, deialdiak, etab.	Zuzendariak	urtero

V. Plana langileei ondo komunikatu eta ahalik eta pertsona gehien inplikatzen saiatu, Zuzendaritzen eta Euskara Batzordearen lidergo partekatuaren bidez.

EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZ HASI
24. PLANA KOMUNIKATU - Zuzendari bakoitzari plana aurkeztu eta ekarpenak jaso - Sail guztietako bileretan planaren eta hizkuntza jarraibideen berri eman eta ekarpenak jaso - Ekarpen guztiak aztertu Euskara Batzordean eta planean beharrezko ikusten diren egokitzapenak egin - Plana argitaratu eta intranetean eskura jarri	Zuzendariak	urtero
25. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK LANDU ONDORENGO GAIETAN - Mailaketa probak - Formazio eta trebakuntza plana - Ekitaldi orokorrak - Langile sartu berrien harrera - Zerbitzua euskaraz eskaintzeko pilotaje gunea - Kanpainak eta hizkuntza ohiturak euskalduntzeko ekimenak - Hizkuntza jarraibideak	Zuzendariak	urtero

VI. Euskara sustatzeko lana egin euskal enpresen artean

EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZ HASI
26. EKINTZAILE ETA ENPRESA BERRIAK **Sortzear dauden edo sortuko diren enpresa berrietan euskararen kudeaketa hasieratik txertatzeak garrantzi handia du, sorreratik gaztelaniaz sor ez daitezen eta hizkuntza kudeatu beharraz jabe daitezen** - Euskalitek sortuko duen gida enpresen eskura jarri jardunaldi, mintegi, ekitaldi eta saioetan. - Web orrian gune bat sortu gidaren berri emateko eta aholkularitza non jaso dezaketen adierazteko	Zuzendariak	2021
27. ENPRESA SAREAREKIN - Hizkuntza kudeaketan eredu diren enpresen jardunaldia edo gosaria antolatu lurralde bakoitzean - Enpresak gonbidatu - Gizartearen aurrean sona eman - SPRIren zerbitzu eta programetan saritu EME ardatzetan ematen dituzten aurrerapausoak. HPS eta BIKAINekin gaia aztertu.	Zuzendariak	2021
28. ARLO SOZIOEKONOMIKOKO EUSKARA PLANA - Planean jasotakoak aztertu eta gauzatzeko baliabideak jarri. Era koordinatuan jardun	Zuzendariak	2020

SPRI

AGENTZIA


4.1 SPRI AGENTZIA

Enpresa garapenerako euskal agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, eta dituen alorrak ondorengoak dira: Kudeaketa sustatzea, Teknologia eta Berrikuntza, Zibersegurtasuna, Babes Zerbitzuak, Idazkaritza orokorra eta Komunikazioa.

4.1.1 DIAGNOSTIKOA

Atal honetan, euskararen ezagutza eta zerbitzu eta lan hizkuntzari buruzko datuak bildu ditugu. Datuak aztertuta, ondorengoak dira atera ahal izan ditugun ondorioak:


- Euskararen ezagutza ez da erdira ere iristen, baina euskara ulertzen duen talde oso handi bat dago.



Alorka aztertuz gero, Zibersegurtasunak eta Enpresa Garapenak dituzte euskaldunen ehunekorik altuenak, Komunikazioarekin batera. Teknologia eta Berrikuntza eta Laguntza Zerbitzuen arloan, berriz, 10etik 2 edo 3 dira euskaldunak. Asko dira, bestalde, hartzaile elebidunak. Talde horri eta euskaldunei begirako trebakuntza indartu beharko da datozen lau urteetan.



- Zerbitzu hizkuntzari dagokionez, hauxe egoera:
    - Indarguneak: errotulazioan eta ingurune digitalean (webgune eta sare sozialak) euskararen presentzia ia gaztelaniaren adinakoa da.
    - Hobetzekoak: jendaurreko ekitaldiak eta harrera, dela aurrez aurrekoa, dela telefono bidezkoa.



Lan hizkuntzan, berriz, arlorik sendoenak dira langileek hizkuntza irizpideen gainean duten ezagutza, batetik; eta bestetik, administrazioekiko harremanetan erabilitako hizkuntza. Hobetzekoetan, berriz, lan bilerak, ahozko komunikazioak, enpresekiko harremanak eta sortze hizkuntza.



ZERBITZU HIZKUNTZA

I. Kanpo komunikazio eta irudian, tokiko hizkuntza gaztelaniaren maila berean kokatu

EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZ HASI
EUSKARAZKO WEB ORRIAN HOBEKUNTZAK EGIN - Loturak berrikusi: planak, BasqueIndustry 4.0, etab. - Balioak eta sozietate batzuen deskribapenak euskaraz txertatu - Bannerrak euskaraz ipini - Izen-emateak: “subscribete”, Up Euskadi - Albisteak: azken ordua> noticia, etab.	KOMUNIKAZIOA	2019
EUSKARARI LEHENTASUNA PRENTSA OHARRETAN ETA BULETINETAN - **EB-N AZTERTZEKO**		
HARPIDETZEN ETA WEBGUNEAREN JARRAIPENA EGIN - Urtean behin euskarazko harpidetzen eta webguneko bisiten jarraipena egin. - Komunikazioko adierazleetan hizkuntzaren aldagai horiek txertatu.	KOMUNIKAZIOA	Urtero

VI. Euskara sustatzeko lana egin euskal enpresen artean

EKINTZAK	ARDURADUNA	EPEA
EKINTZAILE ETA ENPRESA BERRIAK **Sortzear dauden edo sortuko diren enpresa berrietan euskararen kudeaketa hasieratik txertatzeak garrantzi handia du, sorreratik gaztelaniaz sor ez daitezen eta hizkuntza kudeatu beharraz jabe daitezen** - START UP eta ekintzaileen programetan edo zerbitzuetan hizkuntza kudeatzeko gomendioak eta jarraibideak eskura jarri - Euskalitek sortuko duen gida eskura jarri eta jardunaldi, mintegi, ekitaldi eta saioetan zabaldu - Web orrian gune bat sortu, gidaren berri emateko eta aholkularitza non jaso dezaketen adierazteko	Enpresa garapena Zibersegurtasuna	2021
ENPRESA SAREAREKIN - Hizkuntza kudeaketan eredu diren enpresen jardunaldia edo gosaria antolatu lurralde bakoitzean - Enpresak gonbidatu - Gizartearen aurrean sona eman - SPRIren zerbitzu eta programetan saritu EME ardatzetan ematen dituzten aurrerapausoak. HPS eta BIKAINekin gaia aztertu.	Zuzendaria	2020
ARLO SOZIOEKONOMIKOKO EUSKARA PLANA - Planean jasotakoak aztertu eta gauzatzeko baliabideak jarri. Era koordinatuan jardun	Zuzendaria	2020
SPRIKO LANTALDEAK **EUSKARA BATZORDEAN OSATZEKO!**		

SPRILUR


4.2 SPRILUR

SPRILURek administrazio, industrialde eta enpresekin harreman zuzena du, izan ere, jarduera ekonomikoa garatzeko bulegoak, eraikin industrialak eta lurzoru industrial urbanizatuak kudeatzen ditu. Elkarrizketan jaso bezala, eremu euskaldunetako eragile ekonomikoekin harremana dute, hori dela eta, euskaraz egiteko beharra gero eta nabariagoa gertatzen zaie.

4.2.1 DIAGNOSTIKOA

Hizkuntza gaitasunari begira, 10etik 4 pasatxo dira euskaldunak. Euskara gero eta gehiago erabiltzen da barnean zein kanpoan, halere, euskaldunek erabileran aurrera egiteko, lan arloko hiztegiaz jabetzeko eta elkarrizketa teknikoak eduki ahal izateko trebakuntzaren premia dutela nabarmendu dute.

Hona hemen datuak:



Erabilerari dagokionez, indarguneak ingurune digitalean eta lehen harreran dituzte. Eta, hobetzekoa, berriz, jendaurreko ekitaldiak.

Udal eta enpresaburuekin harremanak dituzte. Gipuzkoako eta Bizkaiko eskualde euskaldunenetan nahiago dute euskaraz egitea bileretan eta dokumentazio arrunta trukatzean. SPRILURen ez da bermatzen euskarazko zerbitzua, nahiz eta aukerak ikusten diren. Kontratuei buruz berba egiten hastean zailagoa egiten da euskaraz jarraitzea, enpresaburuen eta SPRILURen aldetik. Hiztegi teknikoa eta dokumentazioa euskaratzeko beharra dute. Itzultzeko duten dokumentazioa identifikatuta dute: kontratuak, pleguak eta dokumentazio teknikoa.



Lan hizkuntzan hobetzekoak ditu ahozko eta idatzizko komunikazioan, enpresekiko harremanetan (galdetegiarekin kontraesanean, begiratu!) eta sortze hizkuntzan.

Telefonoz lehen hitza euskaraz egin, lankideekin harremanak euskaldundu, eta idatzizkoan, helbide elektroniko, gutun eta idazki errazak euskaratzeko beharra adierazi da elkarrizketetan.



4.2.2 ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA

VI. Euskara arlo sozioekonomikoan sustatzeko lana egin

EKINTZAK	ARDURADUNA	EPEA
EKINTZAILE ETA ENPRESA BERRIAK **SORTZEAR DAUDEN EDO SORTUKO DIREN ENPRESA BERRIETAN EUSKARAREN KUDEAKETA HASIERATIK TXERTATZEAK GARRANTZI HANDIA DU, SORRERATIK GAZTELANIAZ SOR EZ DAITEZEN ETA HIZKUNTZA KUDEATU BEHARRAZ JABE DAITEZEN** - Industrialdeetako enpresetan Euskalitek sortuko duen gida eskura jarri - Horren inguruko prestakuntza emateko aukerak aztertu: jardunaldi, mintegi, ekitaldi eta saioetan - Web orrian gune bat sortu, gidaren berri emateko eta aholkularitza non jaso dezaketen adierazteko	?	2021
INDUSTRIALDEETAKO ENPRESEN HIZKUNTZA KUDEAKETA - Gune euskaldunetako industrialdeetako hizkuntza kudeaketa, ezagutza eta interesen mapa egin - Hizkuntzaren kudeaketaren garrantziaz jabetzeko jarduerak antolatzeko aukerak aztertu: o Euskarako dirulaguntzen, ziurtagirien edota Euskaraldiaren berri eman o Hitzaldiren bat antolatu o Bisitak antolatu euskara plana duten enpresetara, etab. o Hizkuntza kudeaketan praktika onak ezagutarazi o Hizkuntza kudeaketaren gida bidali (Euskalitek egiten duenean)	Zuzendaritza & EB	2021

EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOAK

4.3 EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOAK

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako parke teknologikoetan 544 enpresa eta erakunde daude, hainbat sektore jardueratan banatuta.

Parkeen helburu da berrikuntzaren eta garapen teknologikoaren eragile izatea, jakintza trukerako eta enpresa berritzaileak sortzeko gune, kalitatezko espazio eta instalazioak eskainita.

4.3.1 DIAGNOSTIKOA

Parke guztien datuak ikusita, euskaldun eta erdaldunen ehunekoak antzekoak dira, %36 eta %38, hurrenez hurren. Halere, hartzaile euskaldunen multzoa handia da (%23) eta horiek euskaldunduz gero, gaitasunak nabarmen egingo luke gora.


Lurraldeei begiratuta, Gipuzkoa da lurralderik euskaldunena, baina lurraldearen kopuruetatik behera dago Gipuzkoako parkea:

Gipuzkoa: euskaldunak %50 dira, eta hartzaile euskaldunak %17,3

Gipuzkoako Teknologia Parkea: euskaldunak %30,7 eta hartzaile euskaldunak %30,7

Lehentasuna du hartzaile erdaldun eta euskaldunen gaitasuna handitzea eta kontratazio berrietan eragitea.

Arabako lurraldean datuak Gipuzkoakoen antzekoak dira, eta Bizkaia da euskaldun kopururik altuena duen lurraldea (%50).



Zerbitzu hizkuntzari dagokionez, erakunde guztietan gertatu bezala, errotulazio eta ingurune digitalean dugu egoerarik onena. Enpresekiko harremanetan, zerbitzua idatziz euskaraz bermatzeko ahaleginak egiten direla ikus daiteke.

Hobetzekoen artean, ostera, jendaurreko ekitaldiak eta enpresei ahoz eskaintzen zaien zerbitzua.



Lan hizkuntzan administraziora bidaltzen diren dokumentuetan erabiltzen da euskara gehien. Gainerako elementu gehienetan, erabilera %25etik beherakoa da.



4.3.2 ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA

Atal honetan, aurretik zehaztutako ildo estrategikoen ekintza plana zehaztu dugu, bi ardatzak kontuan izanda: zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza.
Bestalde, gune soziolinguistikoa eta hartzailearen adina (gazteak) ere kontuan hartu ditugu elebitasunetik harago, nagusiki euskaraz egiteko neurriak hartzeko.

ZERBITZU HIZKUNTZA

1 Kanpo komunikazioan eta irudian, tokiko hizkuntza gaztelaniaren maila berean kokatu

EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZ HASI
KANPAINAK EGIN - Parkeetan irudian hizkuntza kudeatzeko gomendioak eman (errotuluak, web orria, lehen hizkuntza), bereziki gune euskaldunetan. Irudiak eta argazkiak erabili kanpainetarako.	KOMUNIKAZIOA	2020

II. Enpresekiko zerbitzu eskaintzan eta harremanetan, euskara bermatu

EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZ HASI
HIZKUNTZA KUDEATU ZERBITZUETAN Irizpideak definitu, martxan jarri eta jarraipena egin. Lehentasuna izango dute gazteen artean bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzeko egiten diren bisitek eta jarduerek. profesionalentzako zerbitzuetan prestakuntzan parkeetako zerbitzuetan elkarlan sareetan ate irekien jardunaldietan **HEZKUNTZA ZENTROEN BISITETAN** berdintasunerako foro eta lantaldeetan	ZUZENDARIAK & LANKIDETZA ETA ZERBITZUAK	2021

VI. Euskara sustatzeko lana egin euskal enpresen artean

EKINTZAK	ARDURADUNA	NOIZ HASI
EKINTZAILE ETA ENPRESA BERRIAK **SORTZEAR DAUDEN EDO SORTUKO DIREN ENPRESA BERRIETAN EUSKARAREN KUDEAKETA HASIERATIK TXERTATZEAK GARRANTZI HANDIA DU, SORRERATIK GAZTELANIAZ SOR EZ DAITEZEN ETA HIZKUNTZA KUDEATU BEHARRAZ JABE DAITEZEN** - Gaia BEAZ Bizkaiarekin landu - START UP eta ekintzaileen programetan edo zerbitzuetan hizkuntza kudeatzeko gomendioak eta jarraibideak eskura jarri - Euskalitek sortuko duen gida eskura jarri eta jardunaldi, mintegi, ekitaldi eta saioetan horren inguruko prestakuntza sortu - Web orrian gune bat sortu, gidaren berri emateko eta aholkularitza non jaso dezaketen adierazteko		2021

PARKEETAKO ENPRESEN HIZKUNTZA KUDEAKETA
 	
- Gune euskaldunetako parkeetako hizkuntza kudeaketa, ezagutza eta interesen mapa egin
- Konpromisoa duten enpresak detektatu
- Hizkuntzaren kudeaketaren garrantziaz jabetzeko jarduerak antolatzeko aukerak aztertu:
  o Kontzientziazioa landu erabakiak hartzen dituzten pertsonengan
  o Hizkuntza kudeaketari buruzko gida bidali (Euskalitek egiten duenean)
  o Euskararen Eguna eta Euskaraldiaren bideo laburrak
  o Praktika onak eta bisitak antolatu euskara plana duten parkeetako enpresetara
  o Foro informalak sortu
  o Euskarako dirulaguntzen, ziurtagirien edota Euskaraldiaren berri eman
  o Hitzaldiren bat antolatu
- Plangintza iraunkorra martxan jarri
- Hitzarmenak sinatu, interesa duten enpresekin harremanak euskalduntzeko
	Zuzendaritza
	&
	EB
		2021

BASQUE TRADE


4.4 BASQUE TRADE

Euskadiko nazioartekotze agentzia: Basque Trade & Investment

SPRI Taldearen barruan dagoen sozietate publiko bat da, enpresen **esportazioak eta nazioartekotzea sustatzen laguntzeko.**

4.4.1 DIAGNOSTIKOA

Euskaldun gehien dituen erakundea da, ia %60koa da euskaldunen kopurua. Azpimarratzekoa da daturik ez dugun kopurua, 7 lagunena, hain zuzen ere. Horietako batzuk atzerrian daude zerbitzua eskaintzen.
Organigramari begiratua, atalen batean ulermena bermatuta egon daitekeen aztertu beharko da, kasuren batean daturik ez izateak aukera errealak ikustea eragozten baitigu.



Gainerako erakundeetan bezala, hemen ere datuak hobeak dira irudian eta komunikazioan: ingurune digitalean eta errotulazioan, hain zuzen ere. Errotulu eta kartel batzuk gaztelaniaz daude (bilera geletan) eta horiek euskaratzea komeni da.

Jendaurreko ekitaldietan ditugu hobetzekoak, bai eta enpresei eskaintzen zaizkien idatzizko komunikazioetan ere.



Lan hizkuntzan, %25etik gora kokatzen da ahozko harremanen eta sortze hizkuntzaren erabilera. Gaitasuna kontuan hartuta, elementu batzuetan hobetzeko aukera errealak egon litezke; bereziki, barruko idatzizko harremanetan, sortze hizkuntzan eta enpresekiko harremanetan.



4.4.2 ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA

Sozietate guztietarako ildo estrategiko eta ekintza planaz gain, ez du berariazko helbururik.


ARRISKU KAPITALA

4.5 ARRISKU KAPITALA

Euskadiko Arrisku Kapitalaren Kudeaketarako Sozietateak arrisku kapitaleko erakundeak kudeatzen ditu.

4.5.1 DIAGNOSTIKOA

Erdal hiztunak nagusi dira erakundean, eta horrek zaildu egiten du euskara zabaltzeko ekintzak gauzatu ahal izatea. Halere, hartzaile euskaldunen kopuru handi samarra dago eta ahaleginak egin beharko dira horiek euskalduntzeko.



Ohiko datuak errepikatzen dira kasu honetan. Nabarmentzekoa da jendaurreko ekitaldi eta harreran euskararen erabilera txiki samarra dela, %13 eta %26koa, hurrenez hurren.



Lan hizkuntzan administrazioarekiko harremanetan egiten da ahaleginik handiena. Gainerako ardatzetan, erabilera %25etik beherakoa da.



4.5.2 ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA

Sozietate guztietarako ildo estrategiko eta ekintza planaz gain, ez du berariazko helbururik.


BIC ARABA

4.6 BIC ARABA

Eusko Jaurlaritzak (SPRIren bitartez), Vitoria-Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak hartzen dute parte BIC ARABAn. Ekintzaileei eta enpresei laguntza zerbitzua eskaintzen die, enpresa ekimenak abiatu eta garatzeko.

4.6.1 DIAGNOSTIKOA

6 lagun dabiltza lanean, 3 euskaldunak dira, 2 erdaldunak eta bat hartzaile euskalduna da.



Zerbitzu hizkuntzari dagokionez, ingurune digitalean web orrian euskararen erabilera erabatekoa da. Sare sozialetan, ostera, gaztelaniak euskarak baino toki nabarmenagoa du. SPRIko erakunde guztietan gertatu bezala, jendaurreko ekitaldietan euskarak du tokirik ahulena. Era berean, ahozko harremanetan, dela harreran, dela enpresekiko harremanetan, dauzka erronkarik handienak BIC Arabak.

Zerbitzu hizkuntza



Lan hizkuntzan administrazioarekiko harremanetan egiten da ahaleginik handiena. Gainerako ardatzetan, erabilera %25etik beherakoa da.

Lan hizkuntza



4.6.2 ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA

Sozietate guztietarako ildo estrategiko eta ekintza planaz gain, ez du berariazko helbururik.

5. GOBERNANTZA ETA JARRAIPEN SISTEMA

Euskara planaren eragile guztien koordinazioa eta lidergoa antolaketa planerako funtsezkoak direla jakitun izanda, ahalegin berezia egingo dugu eragile guztien komunikazioa eta elkarlana ondo josten.

Honako hauek izango dira antolaketa eta funtzioak:

Euskara Batzordea: erakunde guztiak egongo dira ordezkatuta. Zuzendaritzako kideak ere egongo dira batzordean, zuzendari nagusia barne.

Antolaketa: parte hartzailea, komunikatiboa, konfiantza giroa sustatuko duena eta partaideek beren sentituko dutena. Urtean gutxienez 4 aldiz elkartuko da.

Funtzioak:

- Euskara planaren norabidea aztertu eta proposamenak egin
- Proposamenak erabaki organoetara bideratu
- Bere gain hartutako ardurak bete
- Urteko gestio plana zehaztu eta jarraipena egin
- Euskara planari buruzko komunikazioa ziurtatu
- Euskara planaren ebaluazioa egin eta ekintza zuzentzaileak proposatu

Bideratzaileak: Euskara Batzordean dauden erakundeetako ordezkariek BIDERATZAILE rola jokatuko dute erakunde bakoitzean.

Egiteko hauek dituzte bideratzaileek:

- Erakundeetako beharrak identifikatu eta Euskara Batzordean edota teknikariari jakinarazi.
- Saileko itzulpen zuzenketak bideratu.
- Adierazleen jarraipena egiteko, datuak eskatu eta zuzendariari eman.
- Zuzendaritzari laguntza eman: euskara planaren exekuzioa, jarraipena, komunikazioa bideratzen.

Erakundeetako bilerak: euskara planari buruzko informazio eta exekuziorako gune izango dira.

Zuzendaritza: euskara plana eta hizkuntza irizpideak onartu eta jarraipena egiteko ardura izango du. Aginte panelaren jarraipena egingo du, kudeaketa planean jarraipenerako adierazleak txertatuz.

Lantaldeak: urtez urte eta beharren arabera sortuko dira gai espezifikoak lantzeko lantaldeak. Euskara Batzordearen eskutik antolatu eta bideratuko dira lantaldeak, baina zuzendariaren koordinazio estuan jardungo du. Kideak gai espezifikoekin lotura zuzena duten langileak izango dira, gaiaren ezagutza teknikoa edota motibazioa dutenak.

Euskara teknikaria: Euskara planean aholkulari eta laguntzaile izango da, eta planaren norabidea aztertu eta proposamenak egingo ditu Euskara Batzordean eta Zuzendaritzan. Komunikazio eta koordinazio lanak egingo ditu.

Trebatzailea: langileei lanpostuan bertan edo online zuzenketak egin, hizkuntza arloko zalantzak argitu, euskarazko baliabideak eman eta itzulpen laburrak egiten lagundu. Mintza saioak gidatuko ditu.

6. AGINTE PANELA

SPRI TALDEKO **AGINTE PANELA**

ZERBITZU HIZKUNTZA

Langileen elebitasun tasa (%)
Lanpostuko hizk. esk. (HE) betetzen ez dutenen %
Zerbitzua ematen duten lanpostuen HEn betetze maila %
Kontratatu berrietan euskaldunen %
Euskaraz ulertzen ez dutenen %

Ingurune digitalean erabilera (%)
Jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera (%)
Gune soziolinguistiko euskaldunetan irudia eta komunikazioa (%)
Gazte eta ekintzaileentzako irudia eta komunikazioa (%)
Enpresentzako kanpaina kopurua
Zerbitzu hizkuntza euskaraz izateko egindako proba pilotu kopurua
Eskainitako zerbitzuan ahozko eta idatzizko erabilera (%)

LAN HIZKUNTZA

- **Ahozko erabilera informala (%)**
- **Bilera orokorretako erabilera (%)**
- **Mezuen erabilera (%)**
- **Langileen arteko mezu elektronikoen %**
- **Dokumentazioaren %**
- **Laneko formazio saioetako eskaintza (%)**
- **Trebakuntza jaso duten langileen %**
- **Ofimatika eta aplikazioak euskaraz (%)**

- **Euskararen erabilerarako jarraibideen betetze maila (%)**
- **Mailaketa probetan parte hartutako langile kopurua**
- **Hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen %**
- **Formazioan dauden langileen % (HE ezarrita dutenetatik)**
- **Helburuak Gestio Planean txertatuta dituzten erakundeen %**
- **Euskara planaren berri jaso duten langileen %**